

Zestoako Parrokiako organoaren zenbait albiste

Organoa Puignau eta Olaziregik egin zuten Azpeitian. Lehen aldiz 1928ko abuztuaren 5ean entzun zen eta J. M. Olaizolak (Bilboko katedraleko kapera-maisua) eta Viktor Zubizarretak (Begoñako organojolea) jo zuten.

Berrogei mila pezeta kostatu zen. Herriak hogeita bederatzi mila jarri zituen eta gainontzekoak Bainuetxean egindako festa batean lortu ziren.

Bultzatzailea Eustakio Zunzunegi izan zen, gero Zestoako organoan hirurogeita zazpi urtez organojole izan zena, 1913tik 1980ra arte. Urte hartan bertan hil zen.

Gero, 1981 urtetik gaurdaino, organojole lanetan Julian Serrano ibili da, eta azkenaldian festa handitan eta zenbait funtzioetan Arantxa Sagarzazu ere badabil.

Organoaren sistema mekanikoa da. Barker sistemari esker bi teklatutan eratzten da. Pedala eta erregistroak pneumatikoak dira, haizeari esker dabil-tza. Bi eskuzko teklatu ditu, bakoitza hirurogeita bat notarekin, eta hantek-tan beste teklatu bat du, hogeita hamar notarekin.

Hogeita bat erregistro edo soinu dauzka eta denera mila eta lauhun hodi edo tutu ditu.

1963an Rafael Puignauk berriro organo dena garbitu eta goitik behera harmonizatu eta afinatu zuen. 1975ean, J. A. Azpiazu eta Felix Luengok, biak Azpeitiko OESA organo-etxeke langileak, puntuan jarri zuten. Azken lan haien ondorengo kontzertua J. M. Azkue Donostiako Santa Mariako organistak eman zuen.

Azkenik, aurtan berritze sakon bat eman zaio Koldo Intxausti apaizaren bultzadari eta Parrokiaren diru ekarpenari esker. Konponketa lanetan J. A. Azpiazuren bi semeak ibili dira. Azpiazu anaiak azpeitiarrak dira.



Zestoako Parrokiako Organoaren zaharberitzearen kontzertua

Irailak 3, igandea, 11:30ean

Organojoleak: Arantxa Sagarzazu, Jose Luis Franzesena

Antolatzailea:
Zestoako Parrokia



Zestoako Parrokiako Organoa zaharberitzearen

KONTZERTUA

Organojoleak

Arantxa Sagarzazu, Jose Luis Franzesena

Meza Aurretik

Tocatta eta Fuga Re txikian, BWV 565 J. S. BACH (1685-1750)

II. Kontzertua Re txikian, BWV-596. A. VIVALDI - J. S. BACH.(1685-1750)

Meza ondoren

Adagio. R. GIAZOTO –T. ALBINONI (1671-1751)

Itsasoan gaiarekin jolasak. J. GURIDI (1886-1961)

Baserria (2. ekita.) Preludioa. J. GURIDI (1886-1961)

Jose Luis Franzesena (Azpeitia, 1942)



Julian Barrenetxea parrokiako organojolearen eskutik jaso zituen solfeo eta musikako lehen ikasketak eta haren soprano eskolanian parte hartu zuen. Arantzazun egin zituen piano ikasketak C. Iturria eta M. Idoiaga irakasleekin. Organo ikasketak Donostiako Kontserbatorio Gorenean egin zituen, eta bertan amaitu zuen Goi mailako karrera, Esteban Elizondo katedradunarekin.

1987an, Azpeitiko Musika Bandaren zuzendari aukeratua izan zen eta kargu horretan jarraitu zuen 2007ra arte. Era berean Julian Barrenetxea Abesbatzaren sortzaile eta zuzendari izan zen 2001era arte.

Organo kontzertu ugari eman ditu, abesbatza eta bakarlari askorekin, baita ere bakarkako edo taldekako musika tresnekin.

Abesbatza nahiz instrumentu edo bandako hainbat sari jaso ditu, Tolosa, Bilbo, Donostia, Getxo, Zornotza eta Segurako Lehiaketatan.

Abesbatza, organo, musika banda edota orkestrarako konposizioak egin ditu. 2000tik aurrera, Azkoitiko Parrokiko Cavaille-Coll organo handiaren organojole titularra da.

Arantxa Sagarzazu (Zestoa,1953)

Solfeo eta sei urteko piano ikasketak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen. Gero Harmonia ikasketak Azpeitiko Antxieta Musika Eskolan osatu zituen. Urtebetez organo ikasketak Esteban Elizondorekin egin ondoren, J. L. Franzesenaren gidaritzapean jarraitu ditu azkeneko bost urteak.

Ikasle gisa, organo kontzertuak eman ditu hainbat tokitan: Bergara, Legazpi, Loiola, Bidania, Zestoa... Zestoako Parrokian organojolea da.

